

SEGMENTAZIOA

Gure produktuaren helburua pertsona orok nahi dugunaren informazioa lortzea da. Hau da, animalia edo famatuei buruz edozer jakin nahi izan ezker, argazki baten bidez helburu hori lortuko dugu.

Gure produktuak ez ditu bezero partikularrik izango, izan ere, edonork nahi izango du zerbaiti buruzko informazioa izan, eta denok eskuratu ahal izango dute, ez baita dirurik ordaindu behar. Beraz, orokorra izango da, oso, gizarte guziarentzat izan daiteke eta. Baldin eta mugikorra izan, noski, eta dakigunez gaur egun denok duakagunez bat, denon eskutan egongo da aplikazioa.

Bezero mota ezberdinak izango ditugu gure aplikazioari bakoitzaren gustuko erabilera emango diona, bere lehentasunen arabera jorratuko dituenak.

Turistek adibidez, bidaiatzen dutenean haien inguruko eraikinen zein lekuen informazioa bilatuko dute. Gazteek aldiz, beste gauza batzuk bilatuko dituzte, hala nola, aktoreak, abeslariak... haien gustukoak izango baitira. Bestale, mendizaleak perretxikoak, landareak, hostoak... aztertu ahal izango dituzte.

Beraz, esan bezala denentzat pentsaturiko aplikazioa da, gai guztietako gaiak jorratu ahalko dituenak eta pertsona mota guztiei zuzenduta dagoena.